

EDITORIALA

Atariko

Itzela. Manifestazioan bildutako jendetzak halaxe zioen, aspaldian Bilboko kaleek ez zuten halakorik ikusi lan eskubideak eta eskubide sozialen aldeko aldarrikapenean eta. Haserrea da nagusi eta orokortzen ari da ikusi nahi duen jende artean. Lan eta negoziazio kolektiboaren erreformari eskubide sozialen suntsiketa gehitu behar zaio, pobrezia eta bazterketara daraman suntsiketa, hain zuzen.

Eta eraikitzen ari den gizartea gustukoa ez dugunok geroz eta gehiago gara, erantzuteko beharra nabaritu dugunok gehiago gara eta grebaren atariko manifestazioak halaxe erakutsi digu. Sindikatuekin bat eginik era eta izaera ezberdinetako eragileekin konpartituriko lanak ere bere emaitza baikorrak izan ditu gizartea mugiarazteko. Egun arrakastatsu honetan modu antolatuan eginiko lana giltzarria izan da jendea erakartzeko eta mobilizatzeko. Bide horrek aukera berriak, eragile berriak eta dinamika berriak ekar ditzake, ahal den hobekien baliatu behar dugun bidea, hain zuzen ere.

Nahi adina arrazoi dugu langile klaseak haserrea adierazteko, elkarrekin indarrak bideratzeko eta politikak beste era bideratzera behartzeko, finean alternatibak badaude eta horietan lerrokatuko da konbentzituago, sinetsiago euskal gizartea. Mobilizazio eta borroka prozesua ez da erraza ez laburra izango baina prozesua eginez ari gara dagoeneko irabazten. Enpresa eta sektoretan lan merkatuaren eta negoziazio kolektiboaren erreforma dela eta nabarmentzen ari den eskubideen txikizioak langileak asaldatu ditu eta hilabeteko lana dugu aurretik martxoaren 29a haserrea bideratzeko enpresa eta kaleetan. Ezartzen ari diren beldurak elkarrekin astindu behar ditugu, horixe baita eraginkorrek izateko modu bakarra, kolektiboak ematen digun eraginkortasuna, alegia. Bidea eginez, greba orokorren atarian gaude. Geratzen zaigun atari ondorengo lana oraindik jendea gehiago erakartzea da, konbentzitzea, enpresetan antolatzea eta mobilizazioa handia gauzatzea. Merez du.

Más de 20.000 personas participaron el sábado 25 de febrero en Bilbao en la manifestación contra los recortes sociales y laborales

CALENTANDO MOTORES PARA EL 29M

El 25 se esperaba una gran manifestación en Bilbao. El elevado número de organizaciones sociales y sindicales convocantes y el alcance de las últimas agresiones así lo aventuraban, pero la respuesta a la convocatoria *Mugi gaitzen geure eskubideen alde* superó todas las expectativas. Más de 20.000 personas se dieron cita en las calles de la capital vizcaína contra los recortes sociales y laborales y mostraron su hartazgo ante la sumisión de los gobiernos al capital, en una jornada que supuso la antesala de la huelga general del 29 de marzo.

La manifestación partió a las 6 de la tarde desde la Plaza del Sagrado Corazón. Una pancarta con el lema *Mugi gaitzen geure eskubideen alde. Recortes igual a más pobreza y menos derechos* encabezaba la protesta. También hubo otras de empresas en conflicto, como Autobar-Deman o Bermúdez, y otras reivindicaban la situación de la mujer, de los jubilados, de los parados, exigían una fiscalidad más justa y progresiva, unos servicios sociales para todos y todas, o las alusiones a la nueva reforma laboral, que supondrá más recortes y más desempleo.

Durante el desarrollo de la manifestación se corearon consignas en contra de los recortes sociales y laborales llevados a cabo por los gobiernos, aunque, sin duda, la más reiterada fue el llamamiento a la huelga general del 29 de marzo.

Al finalizar la marcha, en el Arenal bilbaíno, tomaron la palabra Patricia Muñoz y Felipe Henares, por los colectivos sociales, quienes insistieron en que "para salir de la crisis no hacen falta recortes sino todo lo contrario" y llamaron "a seguir movilizándose para conseguir un cambio social profundo. Hoy es el principio de un nuevo tiempo".

Por parte sindical se dirigieron a los presentes Sonia González, responsable de Comunicación de LAB, quien recordó que



los recortes se realizan contra la clase trabajadora y la sociedad en general, mientras quienes más tienen siguen acaparando la riqueza y el poder, y Mikel Noval, responsable de Política Social de ELA.

LA MOVILIZACION ES EL CAMINO

Durante su intervención, Noval desmontó las mentiras de que los recortes son la única alternativa y el discurso del individualismo. "Nuestra fuerza depende de la fuerza colectiva. Por eso estamos aquí organizaciones muy diversas, sindicales y sociales, para denunciar las políticas que se aplican y demandar un cambio radical de las mismas".

Sigue en la página 2

ELAk jardunaldia antolatu du martxoaren 8an Bilbon, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta

MARTXOAK 8, 29RA BEGIRA

ELAk martxoaren 29ko greba orokorriari begira ospatuko du aurtengo Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Horregatik, *Murrizketa eta erasoei aurre eginez, emakumeok grebara goaz! Por una vida digna* lelopean jardunaldia antolatu du martxoaren

8rako, osteguna. Ekitaldia goizeko 10:00tan hasiko da Bilboko Itxaropen Kalean kokatuta dagoen pilotalekuan. Bertan ELAko lau ordezkari euren esperientzia azalduko dute. Hitzaldiaren ostean, manifestazio batek Bilboko kaleak zeharkatuko ditu.



ELA celebrará el 8 de Marzo en Bilbo un acto que servirá para ir preparando la huelga general



Noval destacó el hecho de que la semana pasada, con la inauguración de la Torre Iberdrola, "han estado juntos quienes han aprobado subirnos la luz un 30% y quienes nos la cobran. Juntos quienes han decidido prorrogar de nuevo la vida a Garoña y quienes logran millones de euros de beneficio con ello. Juntos nuestros responsables políticos y el presidente de Iberdrola, que cobra más de 7 millones de euros al año mientras explotan a las trabajadoras subcontratadas de los teléfonos

de atención... Y todos ellos, con la monarquía... mientras nosotros y nosotras estábamos en la calle, denunciando la connivencia entre la empresa y el poder político. Hechos como éste demuestran que "si queremos respuestas a esta crisis económica para que nos conduzca a un mundo más saludable, más justo y más pacífico, vamos a tener que salir a las calles y obligar a gobernantes y empresarios a hacerlo. Este es nuestro papel, movilizarnos para defender y reivindicar nuestros dere-

chos. Y más en esta época, en la que estamos sufriendo una cacería sin piedad de estos derechos", redundó.

Noval continuó su exposición haciendo un llamamiento a la movilización. "Las movilizaciones sirven. Son la única vía que tenemos para cambiar las cosas. Y cuando, como hoy, miles y miles de personas estamos juntas, somos más conscientes de que podemos", aseguró convencido.

MÁS DERECHOS SOCIALES, MÁS DERECHOS LABORALES

En relación a la huelga general del 29 de marzo, el responsable de Política Social de ELA insistió en que tiene un doble mensaje. "Por un lado, para decir no a la reforma laboral aprobada, que es una auténtica salvajada. Por otro,

para decir sí. Sí a la reivindicación de que es necesario, posible y urgente un cambio de las políticas, poniendo por delante las necesidades y los derechos de la gente. Más derechos sociales, más derechos laborales. Más participación social, más protección social, más empleo con derechos, dar vuelta atrás en las reformas fiscales aprobadas en los últimos años. Estas alternativas son posibles. Y para llevarlas a la práctica no nos queda otra que la movilización", volvió a insistir Noval, poniendo fin de esta manera al acto.

Destacar, finalmente, que a las 19:30 de la tarde todavía había gente desfilando por la Gran Vía en dirección al Arenal. Sin duda, una gran jornada que debe animarnos a hacer del 29 de marzo una jornada de huelga exitosa.

Otsailaren 25ean Bilbon egin zen manifestazioa ikaragarri arrakastatsua izan zen. 20.000 lagunetik gora bildu ziren, euren eskubideen alde borrokatzeko prest dauden 20.000 lagun

MURRIZKETA ETA ERASOEI AURRE EGINEZ... EMAKUMEOK GREBARA!

Iazko martxoaren 8tik iragartzen genuena gertatu da, eta lan-erreforma bat ezarri digute, erreforma atzerakoa -inon bada-; eta hori gutxi balitz bezala pentsioen erreformarako Akordio Sozial eta Ekonomikoa ere badugu hemen. Iazko martxotik dei egiten genuen antolakuntza eta mobilizazio sindikal feministarako.

Aurten ere gure lan- eta gizarte-eskubiderik funtsezkoenen aurkako eraso eta murrizketen segida hura aurrera doa etengabe eta batere gupidarik gabe. Oraingo honetan gure iragarpenik txarrenak gairatu dira, zeren lanaren eta negoziazio kolektiboaren erreforma modu antidemokratikoan onetsi baita, eztabaidarik gabe, ezta aurretiazko informazio-aldirik gabe ere.

Nazio-manifestazio baterako deialdia egin dugu, murrizketen aurka. Bilbon izan zen otsailaren 25ean. Eta martxoaren 29ko greba orokorra ere prestatzen ari gara Hego Euskal Herri osoan.

Eta emakumeok, ordaindutako edo ordaindu gabeko langile garen aldetik, zer esan behar dugu gure inguruko egoeraz?

Herritar guztien eta langileen oinarrizko eskubideen aurkako erasoaldi orokorra ikusita, ezin dugu aipatu gabe utzi emakumeok okerren daudenen artean gaudela. Lan-merkatua sexuaren arabera bananduta dago, eta gure postuak prekarioenak izaten dira. Gure presentzia neurritz gainera da langabezian, aldi baterako enpleguan, lanaldi partzialeko enpleguan,

azpienpleguan, ezkutuko ekonomian... eta esan gabe doaz ume-hazkuntza eta ordaindu gabeko zainketa-lanak. Pobreziak emakume-aurpegia zeukan eta dauka.

Badakigu oraingo erasoaldi neoliberalaren xedeak zein diren: soldatak nabarmen jaitea, enplegu duinaren partez enplegu prekarioa sortzea, eta lan-harmanetan enpresariaren boterea sendotzea. Soldaten jaitsierak eta eroste-ahalmenaren galerak neurritz gainera eragina izango dute emakumeengan, baita pentsioen kasuan ere, emakumeen pentsioak, batez bestez, gizonenak baino apalagoak baitira.

Labur esanda, gure lan-baldintzak eta bizimodua txarragoak izango dira. Horren aurrean, emakumeok badugu zer esanik eta zer eginik.

Onetsitako neurrien sorta honela laburbildu daiteke:

- Iraizpena, hainbat bidetatik, erraztu eta merkatu.
- Negoziazio kolektiborako eskubidea indargabatu. Hitzarmen-soldatetik salbuestea erraztu. Hitzarmen aurrera-eragina bi urtera mugatu.
- Malgutasuna areagotu. Mugigarritasun geografikoa eta funtzionala erraztu; lan-baldintzak nabarmen aldatzeko baimendutako gaien artean soldata-zenbatekoa gehitu.
- Kontratazio prekarioagoa. Kontratu berria, 50 langilerainoko enpresetarako, zerga-kendurekin eta

Gizarte Segurantzaren kuotako hobariekin, eta lehen urtean irazpen askea izango duena.

■ Lanaldi partzialeko kontratua bultzatu: Horrelako kontratuen arabera zilegi da aparteko orduak sartzea. Gehienbat emakumeek dituzte horrelako kontratuak, ez dira izaten norberaren borondatezkoak, baizik eta, zainketak egiteko gizarte-zerbitzuak oso urriak direnez edo batere ez dagoenez, emakumeak lan-mota bietan aritu behar dira (ordaindutakoa eta ordaindu bakoa).

Gogora ekarri behar dugu hona badaudela beste neurri batzuk ere gizonengan eta emakumeengan eragin desberdinak dituztenak:

- Gutxieneko soldata izoztea; menpekotasun-legearen indarrean sartzea atzeratzea; sektore publikoko plantillak izoztea; gizarte-gastua murriztea, eta abar.
- Soberan ditugu kalera ateratzeko arrazoiak. Gainera, prozesu atzerakoi horrek gizonengan eta emakumeengan dituen eragin desberdinak ezkutatzeko ez da inorentzat mesedegarri; aitzitik, nahasgarria da sistemaren krisi honetarako benetako irtenbideak bilatzerakoan.
- Horregatik aurtengo martxoaren 8an kalera aterako gara bizimodu duina izateko eskubidea eskatuz, murrizketei aurre eginez, eta greba orokorra eta etortzearen dauden gainerako gizarte-mobilizazioak aldarrikatuz.

Bilboko udalak zazpi igande eta jai egunetan saltokiak irekitzea baimentzen duen mozioa onartu zuen otsailaren 23an

“LANGILEOK ATSEDEN HARTZEKO DUGUN ESKUBIDEA LURPERATU NAHI DUTE”



ELA eta LAB sindikatuetakordezkariek bilkura egin zuten otsailaren 23an Bilboko udalaren aurrean; bertan langileok jai izateko dugun eskubidearen hileta antzestu zuten.

Otsailaren 23an, goizeko 10:00tan, hil kanpaiak entzun ziren Bilboko udalean. Kanpaien hotsari erantzunez, hamarnaka lagun elkartu ziren Udaltxearen atarian. Guztiak beltzezko, doluz jantzita. Hil-kutxa, lore-koroa eta hildakoaren omenezko negar eta oihuak ez ziren falta izan. Izan ere, egun horretan, Bilboko udalbatzak –EAJ, PSE-EE eta PPren botoekin– langileek atsedenerako duten eskubidea lurperatu zuten.

ELAk merkataritzan duen arduradun Marige Fernandezek nabarmentzen duenez, iragan ostegunean hartutako erabakiarekin –Bilboko dendariek zazpi jaiegunetan ireki ahal izango dute– Bilboko udala kapitalismo basati eta merkataritza-gune handien esanetara jarri da beste behin, sektoreko langileen eta bestelako gizarte-eredu baten kaltetan.

“Igande eta jaiegunetan dendak zabaltzeko saiakerak ez dute etenik. Borrokari esker, orain arte, sektorearen

gehiengoak Euskal Autonomia Erkidegoan jaiegunetan ez zabaltzea lortu da. Jaiegunetan irekitzearen kontrako borroka ez da lan arloko borroka bat soilik, liberalismo gordinenaren oinarriko printzipioen kontrako borroka da, zeinek, beste batzuen artean, neurrigabeko kontsumoan oinarritutako harremanak bultzatzen dituen”.

Langileek atsedena hartzeko duten eskubidea defendatzeko eta bestelako gizarte eta kontsumo eredu bat aldarrikatzeko Marige Fernandezek martxoaren 11n deitutako manifestaziora joateko gonbita luzatzen du. “Sindikatuak, merkatariek eta euskal kontsumitzaileek langileak bizi familiarra eta lana bateragarri egiten duen, denda txikiak merkataritza-kate handiekin lehiatu daitezkeen eta neurrigabeko kontsumoan soilik oinarritzen ez den aisialdia ahalbidetzen duen jendarte ereduaren aldeko apustua egiten dugu. Hau dela eta jendarte osoari igande eta jaiegunetan irekitzearen kontrako borrokan gurekin bat egiteko deia luzatzen diogu. Horretarako sindikatuak, merkatariek eta euskal kontsumitzaileek manifestazioa deitu dugu martxoaren 11rako.”

“La decisión de abrir en domingos y festivos supone enterrar nuestro derecho al descanso”

● Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundearen lege berriaren aurka

Eusko Legebiltzarrak Borondatezko Gizarte-Aurreikuspen Erakundeak (BGAE) arautzen dituen lege berria adostu zuen otsailaren 23an, PSE eta PPren botoekin. ELAk argi utzi nahi du ez duela inondik inora ere onartzen lege berriak ezartzen duen erueda. Hori dela-eta, barne-hausnarketa aldi bat hasiko du, egoera berri honetan zein urrats egin behar duen erabakitze aldera.

Lege berriaren arabera, enplegu-BGAEak hainbat aukeren artean bat besterik ez dira izango; gainera, erabakiak hartzeko moduan aldaketak ezarri dira, eta horrela ekarpen partekatuen eta bizi arteko errentaren erueda ezabatu dute, hots, pentsio osagarrien zinezko sistema baztertu eta BGAEak onura fiskalak dituen aurrezki modu bat bihurtu dituzte, diru gehien duen jendearen mesedetan.

● Nueva sentencia en contra de la dirección de Metro Bilbao

El Juzgado de lo Social ha dictado sentencia contra la dirección de Metro Bilbao por vulneración del derecho a la huelga del pasado 21 de setiembre, con motivo de la festividad de Santo Tomás. La sentencia señala que ese día se vulneraron los derechos de los trabajadores al impedir al comité de huelga acceder a las oficinas centrales de la empresa para hacer seguimiento de la protesta y el cumplimiento de los servicios mínimos.

El Juzgado condena a la empresa a la reparación de las consecuencias derivadas del acto y a “dar cuenta de la sentencia a todo el personal, al menos durante tres días, en la intranet corporativa o comunicación interna”.

● Huelga indefinida en Deman

La plantilla de la antigua Deman en Gipuzkoa, Bizkaia y Araba, –empresa dedicada al *vending* (fabricación, mantenimiento y reposición de las máquinas de café)–, se encuentran en huelga indefinida desde el pasado 24 de enero, para exigir la readmisión de los 12 trabajadores/as despedidos. Las rescisiones están recogidas en el ERE de extinción aprobados en Madrid, con el apoyo de los sindicatos UGT y CCOO y la multinacional Autobar.



ELA, LAB Y STEE-EILAS SUSPENDEN SU PARTICIPACIÓN EN LA MESA NEGOCIADORA DE LA FUNCIÓN PÚBLICA DE NAVARRA

ELA, LAB y STEE-EILAS abandonaron el 22 de febrero la mesa de negociación de la función pública de Navarra. Imanol Pascual, responsable de ELA-Gizalan en Navarra, destaca que el abandono se debe a la negativa del Gobierno que preside Yolanda Barcina a retirar la propuesta para la reducción del gasto de personal, una propuesta irracional e irresponsable.

“El Gobierno de Navarra busca el enfrentamiento entre trabajadores y trabajadoras de los sectores público y privado, la destrucción de empleo público, el empeoramiento de las condiciones de trabajo del sector público y en consecuencia el desmantelamiento de los servicios públicos. No toleraremos ningún ataque, ni contra el personal del sector público ni contra los servicios sociales”.

Pascual destaca que la movilización es el único camino para lograr otro tipo de políticas. “Exigimos un cambio en las políticas públicas que supongan un aumento del gasto social y un cambio en las políticas impositivas hacia una fiscalidad más justa. En ELA estamos convencidos de que a través de la movilización vamos a ser capaces de reforzar los servicios públicos y de garantizar los puestos de trabajo y las condiciones laborales y sociales de los trabajadores y trabajadoras. Por ello hacemos un llamamiento a todas las trabajadoras y trabajadores de las Administraciones Públicas de Navarra a participar en la huelga del 29 de marzo en contra de los recortes en el sector público, en contra de la reforma laboral y en defensa de un sector público propio que garantice los derechos de la población”.



Unai Martínez, secretario general de ELA-Metala, reconoce la preocupación de ELA por el futuro de las plantas de ArcelorMittal en Euskal Herria

"PUEDEN DEJAR MORIR ALGUNAS PLANTAS"



Los comités de empresa de las diferentes plantas de ArcelorMittal en Euskal Herria muestran su preocupación por el futuro de algunas factorías, como consecuencia de la concentración de la producción diseñada por la dirección de la multinacional india. "Pueden dejar morir algunas plantas", advierte Unai Martínez, secretario general de la federación del metal.

-¿Qué decisiones ha adoptado la dirección de la multinacional?

-ArcelorMittal está desarrollando una política que prioriza la concentración industrial, lo cual representa un serio riesgo para el empleo y el futuro de la mayoría de las plantas que posee tanto en Europa como en Euskal Herria.

En estos momentos podemos afirmar que los ajustes que se puedan aplicar en las plantas que posee la familia Mittal en Euskal Herria y en el Estado español, serán con carácter estructural.

En esta línea no hay que olvidar la política de la compañía: se potenciará única y exclusivamente aquellas plantas con resultados positivos, con una estrategia de concentrar los productos por especialidades.

Teniendo en cuenta lo que ellos llaman *solidaridad industrial*, no se va a compensar los beneficios de una empresa con las pérdidas de otra. Es decir, se pueden dejar morir algunas plantas.

-Ante esta situación, ¿Qué plantea ELA?

-Desde ELA exigimos que la empresa apueste por el mantenimiento de todas las plantas y de su futuro. Miles de familias dependen de esta decisión. No debemos olvidar que la decisión de cerrar una planta repercute en la plantilla y en su entorno industrial y social.

Es necesario que los gobiernos de Gasteiz e Iruñea sean conscientes de la situación a la que nos vemos abocados. ¿Cuándo se piensa reiniciar la actividad de la acería de Bergara? ¿Qué futuro tienen empresas con una plantilla que ronda una edad media que supera los 55 años? ¿A las instituciones, les da igual la desindustrialización de Euskal Herria?

Por todo ello, desde ELA vamos a iniciar una ronda con las diferentes administraciones para que actúen ante esta situación. Exigimos que se garanticen inversiones y las cargas de producción necesarias para mantener las instalaciones. La coyuntura económica es complicada, pero no tenemos que olvidar que es imprescindible defender lo nuestro. Queremos una Euskal Herria con industria y condiciones de trabajo dignas. Los Mittal defienden sus intereses, ¿acaso no tenemos que defender nosotros lo nuestro con el mismo ímpetu?

"ArcelorMittal multinazionalak daraman politikaren ondorioz hainbat lantokiren etorkizuna kolokan egon liteke"

BIZKAIKO DIPUTAZIOKO LANGILEAK KALITATEZKO ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE

Bizkaiko Diputazioko eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (GUFÉ-IFAS) delegatuak kontzentrazioa egin zuten otsailaren 21ean Leioako egoitzan, bertako langileekin batera. Mobilizazioaren helburua ordezkapenen murrizketen ondorioz zerbitzuaren prestazioan zein lan baldintzetan gertatzen ari den okerragotzea salatzea izan zen.

Sektoreko arduradun Xabier Udabek egungo abagune ekonomikoan GUFÉK eskaintzen dituen zerbitzuak inoiz baino garrantzikoagoak direla nabarmentzen du. "Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak behar gehien duten

kolektiboari ematen die zerbitzu eta babesa: hirugarren adineko egoitzak, tutoretza duten umeen etxebizitzak, minusbalotasuna duten pertsonen egoitzak... 2010. urteaz geroztik, GUFÉK langile ordezkapenak murriztu egin ditu arlo hauetan. Lehen murrizketa %25ekoa izan zen; orain %34a gehitu behar diogu Foru Aldundiaren aurrekontua aintzat hartzen badugu".

Udabek murrizketa hauen ondorioen larritasuna azpimarratzen du. "Ondorioak oso larriak dira. Erabiltzaileak pairatzen ditu langile faltaren ondorio nagusiak: adineko pertsona duxatzen ez denean, gure etxebizitze-

tan ditugun umeei eskola-ordutik kanpoko jarduerarik bermatu ezin diegunean, minusbalotasuna duten umeei irteerak eta txangoak ematerik ez dugunean, instalakuntzak behar diren moduan garbitu ezin direnean... Ehunka adibide jarri ditzakegu, zoritxarrez".

"Denok dakigu -gaineratzen du Udabek- lankide bat falta denean zer gertatzen den: gainontzekoen lan-karga handitu egiten dela. Kontuan eduki behar da ez dugula makinekin edo torlojuak egiten lan egiten, pertsonekin baizik. Murrizketak, gure bizkar gainean erortzen dira zuzen-zuzenean, hau da, betikoen bizkar gainean... Gure

nagusien bizkarren gainean ez, noski! Langileak jasaten duen presioa oso handia da, besteak beste, dagozkion baimen eta lizentziak ez hartzeko, naiz eta justifikatuak izan".

ELA denuncia los recortes en la Diputación de Bizkaia y exige servicios públicos universales, gratuitos y de calidad

www.ela-sindikatu.org

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatu.org

Franqueo concertado
nº 08/207